


GUSTAV

HONDORATZE BATEN ISTORIA

VENANCIO AMEZTI





GUSTAV

HONDORATZE BATEN ISTORIA

Curiosa carta del piloto del Gustavo
de fecha 16 de Mayo de 1875.

No puedo menos de insertar en esta
hoja Amesti, la historia una carta escrita desde
que recibí, porque hay un francés
Febrero de dicho año y otras cosas en
ella que fueron muy agradecidos y
des, puesto que da de nuevo gran
mente dicha carta tal como está
que pueda, pero hay frases y
carta copiada literalmente es si
mon cher ami Amesti: J'esp
dans bonne santé, j'esp
carant le 5 Février et a
ou nous recevions,
vies à une autre
qui est sit



VENANCIO AMEZTI

**ZARAUZKO UDALA
SANZ ENEA LIBURUTEGIA
2020**



Venancio Ameztik idatzitakoa da hemen azalduko dugun testua, Zarautzen hondoa jotako Gustav itsasontziaren informazioa jasotzen duen izkribu bakanetakoa.

Zarauzko kronista izan zen Venancio Amezti XX. mende hasieran urte askotan. Eskuz idatzitako hainbat liburukitan, milaka orritan, Zarauzko historiaren zati handi bat jaso zuen. Zarauzko elizbarrutiko parrokiaren agiritegian daude eskuizkribu originalak, Santa Maria Zeruratze parrokiaren.

Zarauzko Karmeldar Oinutsen komentuko lehen kapilaua izan zen Venancio Amezti, eta bitxikeria moduan aipatuko dugu, Evaristo Uranga sendagile zarauztar ezagunaren osaba izan zela.

Gustav itsasontzi alemana 1874ko abenduaren 12an azaldu zen gure kostaldera, larunbat hartako ekaitz bortitzetik ihesi. Getariara hurbildu nahi izan zuen, San Anton mendiaren babesera, baina Akarregi baserrian zegoen Karlisten 3. Batailoiak tirokatu egin zuen, gerrako kontrabandoa zekarrelakoan.

Karlistaldian zeuden bete-betean; liberalen esku zegoen Getaria, eta setiatuta zeukaten karlistek. Itsasontzi alemana liberaleri laguntza ematera zihola pentsatu zuten karlistek, eta tiroka hasi zitzaizkion. Laguntza eskaintzera irtendako getariarrei esker lortu zuten, azkenean, ontzia lotzea. Gauean, ordea, denboraleak sokak apurtu eta Zarauzko hondartzarantz eramaten zuen ontzia, hondoa jo zuen arte. Hurrengo egunetan, Gustav ontziak zekarren petrolioa altxor preziatua bihurtu zen karlistentzat, nazioarteko blokeoan baitzeuden.

Alemania nazio neutrala zen gatazka hartan, baina inperio izaera sendotzen ari zen, armada ahaltzua eraikitzearekin batera. Haien ontzia tirokatu izanak eta petrolioa kentzeak gatazka diplomatikoa sortu zuen, eta Alemania karlisten aurkako gerran sartzekotan ere izan zen. Urak bere onera etorri ziren, jakina.

Ontzia salbatzeko ahalegin handiak egin zituzten arren, azkenean hortxe bertan abandonatu behar izan zuten. Gustaven hezurduraren zuakerrak agerian gelditzen dira aldian behin, itsasoaren enbatak Iñurritza bokaleko hondarra eramaten duenean.



*Gustav itsasontzia, dagoeneko, zarautztarren
iruditeria kolektiboaren zati bat da, herriaren
historia osatzen duen sinboloetako bat.*





Gustav itsasontzi alemanaren hondartzea,
1874ko abenduaren 12an

Ekaitz handiak izan dira beti Kantauri itsasertzean, eta noizean behin urpera joaten dira ontziak edo hondoa jotzen dute Zarauzko hondartzan. Badugu horietako batzuen berri. 1662an, hirurogei gizon Ternuara zeramatzan Ziburuko (Frantzia) itsasontzi bat ekaitz haserreak arrastaka eraman zuen hondartzarantz; bertan hondoa jo ondoren, txikitu egin zen eta hamar gizon hil ziren. Badakigu, baita ere, hemen inguruan hondoa jo zuela beste batek 1770ean. Hondartu egin ziren hauek ere: L'Amiable bergantina 1840an, eta oloz betetako ontzi frantziar bat 1857an, zeinaren zama Jose Antonio Amilibiak erosi zuen, Cadizen saltzeko gero. Harri zuriko bloke handiak zeramatzan ontzi batek 1882ko urtarrilaren 5ean jo zuen hondoa hemen, Munoa paretik pasatzean, gogoan dut ikusi izana, eta 1868an kargarik ez zeraman beste batek, Getariatik herrestan eramandakoak. Baina zarauztarrei gehien interesatuko zaiena Gustav alemaniarren hondartzea da, petrolioz beteta etorri baitzen, probintzian oso urria zen garaian. Alemaniarekin ia-ia gatazkaren iturri bihurtu zen gainera. Itsasontzi hark hondartza honetan hondoa jotzeari buruzko datu batzuk ematen saiatuko naiz.

Espainiako porturen batera zihoan Gustav, zalan-tzarik gabe, petrolio zama ekartzera. Ez da jasotzailearen herri jakin, kapitainak ez baitzuen argitu, eta honek hainbat paper erre baitzituen zenbait pertsonaren aurrean. Ekaitz ikaragarri batek ustekabeen harrapatu zuen ontzia Getaria parean 1874ko abenduaren 12an. Arriskuaz jabetuta, portura gerturatzea erabaki zuen kapitainak, larunbat hartako arratsaldean.

Karlista Gerraren garaiak ziren. Hirugarren Batailoi Karlistako soldadu talde bat zegoen Zarautzen, eta Getariako Akarregi baserrian, aldiz, Estatuko konpainia bat guardian. Azken honek Gustav ikusi zuenean, gerrako kontrabandoa zekarrela uste izan zuen, eta hura laguntzera irteerako txalupak tirokatzen hasi zen. Horiek, tiroketatik ihesi, itzuli egin behar izan zuten. Gauean, iluntasuna lagun, ontzia ahal bezain ondoen lotzea asmatu zuten getariarrek, ahalegin handiz, eta tripulazio osoa lehorreratzea lortu zuten, ez baitziren gaua ontzian igarotzera ausartzen, ekaitzaren haserre bortitzaren beldur. Txakurra bakarrik utzi zuten han. Nolanahi dela, ekaitz gogorrek soka guztiak hautsi zituen eta, biharamunean, igande egun-sentian, hondartzako ekialdean agertu zen Gustav, kanalean, Talaimendi menditik hurbil, beraz. Zarauzta asko saiatu ziren itsasontzira hurreratzen, baina inor ez zen igotzera ausartu, txakurrak zaunka egiten bai-

tzien etengabe, ontziaren defentsan. Egun hartan bertan, abenduaren 13ko arratsaldean, kapitaina, pilotua eta eskifaia osoa etorri ziren Getariatik, Lorenzo Basurto izeneko batekin, nire osaba berau. Hark, ontzi-kapitaina izanik, maiz egiten zuen Txina eta Amerika arteko bidaia itsasoz, eta ezagutzen zuen alemanera pixka bat. Halaxe, interpretari lanak egin zituen Gustaveko tripulazioarentzat, haiek hemen egon ziren garaian. Hondamendiaren tokira joan ziren denak, nire aita Jorge Ameztirekin batera, eta ontziko zama lurre-ratzearen ardura aitzak hartu zuen bere gain. Bertara iritsi zirenean, eta kapitainak egindako keinua medio, txakurrak jauzi egin zuen hondartutako ontzitik, eta itsasbehera zela baliatuz igo egin ziren zenbait. Marinelen tresnak eta kutzak atera zituzten lehenik, eta eskifaia ostatu eman zitzaion. Kapitaina eta pilotua gure etxean gelditu ziren, Kontseju Zaharrean.

Gustavek, lehen esan bezala, petrolio zama handia ekarri zuen, eta oso ondo etorri zitzaion probintziari, gai urria baitzen orduan, nire aitaren oharraren arabera: *“Gustav bergantinean aurkitutakoari buruzko oharra. Ustez beteta dauden kupelak 1449 dira, petrolio eta gazmildun kutzak 707, lata osoak 348, hautsitakoak 348”*. Nik gordeta daukadan aitaren oharraren arabera, kontzeptu horregatik saldutakoa honakoa izan zen: *“Gastuak*

ordaintzeko, 1874ko abenduaren 26an jendaurreko enkantean saldutakoa: kupel bi-2 Pedro Legarra jaunari, kupel bat-1 Manuel Arrillaga jaunari, eta hamar-10 kupel Migel Ezenarro jaunari. 1875eko urtarrilaren 5ean, hamar-10 kupel Migel Ezenarro jaunari, eta laurogei-80 kupel Juan Jose Alkorta jaunari”. Gainerako merkantzia herri honexetan eta Gipuzkoako beste askotan saldu zen, aitari sarritan entzun nionez.

Arestian esan dudan bezala, Lorenzo Basurtok interpretari lanak egin zituen Gustaveko tripulazioarentzat, eta haiek herriko zenbait ostaturan utzi ondoren, Kontseju Zaharrean gelditu ziren kapitaina eta pilotua. Hauek primeran konpontzen ziren nire gurasoekin. Ondo gogoratzen dut, gurasoei horrela entzunda, bietako bat, kapitaina uste dut, protestantea zela; pilotua, aldiz, katolikoa zen, eta Ama Birjina txit santuaren irudi edo estanparen bat erakutsiz gero, lehenengoak alde egiten zuen ziztu bizian, eta bigarrenak musukatu egiten zuen gogo biziz. Kapitaina eta pilotua nire etxean egon ziren 55 egunez, 1874ko abenduaren 13tik 1875eko otsailaren 7ra arte, eta ostatua ordaindu zuten, eguneko hamalau erreal. Lehenengo hogeita lau egunak ordaindu zituzten, eta gainerako hogeita hamaika egunak ordaindu gabe joan ziren, liberalek hartu baitzuten etxea.

Nire ama Felipa Hiburuzketaren ohar bat hitzez hitz kopiatu dut, eta honela dio: *“Ameztiren emazte Felipa Hiburuzketak, Zarauzkoa eta herri horretan hondartu zen Gustav itsasontziaren kapitaina eta pilotuak ostatu hartu zuten etxearen jabeak eta nagusiak, Gustav izeneko itsasontzi alemanaren hondoa jotzeak eragindako gastuak ordaintzeko arduradunari honako kontua aurkezten dio: aipaturiko kapitaina eta ontzi bereko pilotuaren hogeita hamaika eguneko mantenua, egunean hamalau erreal bakoitzeko, guztira 868. Zarautzen, 1875eko abenduaren 22an. Kontu hau hogeita hamaika eguni bakarrik dagokio, aurreko hogeita lau egunak jaun horiek beraiek ordaindu baitzituzten, baina herria liberalen esku zegoela alde egin zutenez gero, kontu hau ordaindu gabe dago. Felipa Hiburuzketa”.*

Kapitaina eta pilotua Konseju Zaharreen egon ziren bitartean, ondorengoa gertatu zen, hainbatetan nire gurasoei entzun nienez: behin batean, Santa Baratik jaitsi zen mikeleteen taldea, Antonio Arnao jaunaren gidaritzapean. Kapitaina eta pilotua, etxea eta nire familia defendatzeko asmoz, beti balkoian zintzilik izaten zuten Alemaniako banderaren ondoan jarri eta oihuka hasi ziren: *“kapitain eta pilotu alemanak!, kapitain eta pilotu alemanak!”*, baina ti-

rokatu egin zituzten hala ere. Banderak tiroren bat jaso zuen, eta nagusia horretaz ohartu zenean, bere mutilen aurrean jarri eta deiadar egin zien: “*gelditu mutilak!*”. Tiroek alemaniarrek jotzea saihestu zen horrela, eta baita Alemaniarekin gatazka sortzea ere. Gure senitartekoa zen Antonio Arnao, eta hau, bere ofizial batzuekin batera, gure etxera etorri zen, gurasoak eta itsasgizon alemaniarrek agurtzera. Barkamena eskatu zien, nahi gabekoa izan baitzen. Harrezkero, karlistek zein liberalek errespetua izan diote gure etxeari, kapitaina eta pilotua bertan egon ziren denboran denek errespetatu zuten Alemaniako bandera.

Hasieran esan dudan moduan, itsasontzi horren hondartzeak Alemaniarekin gatazka sortu zuen ia, eskifaiako zenbait marinelek azalpen faltsuak eman baitzituzten, adieraziz Getariako kaira hurbiltzean tirokatu egin zituztela karlistek. Alemaniarekin hausteko asmoa zuten beste pertsonaia batzuek ere parte hartu zuten; eta horregatik, eta gauzak beren lekuan jartzearen, Gipuzkoako gobernadore zibil Ceferino Suarez Bravo jaunari bidezko ikerketak egin zitzala agindu zion Erregeak, emaitzak jakinarazi eta ahal bezain zabalkunde gehien ematearren. Hondoratzearen xehetasun batzuk agertzen dira dokumentu horretan, eta interesgarria iruditu

zait nik neuk frantsesetik itzulitakoa hona aldatzea;
horrela dio:

“Gustav itsasontziari buruz Gipuzkoako gobernadoreak egindako deskargu ofiziala. Azken aldi honetan zeregina eman du Zarauzko uretan izandako hondartzeak. Gerraren ondoriozko galeratzat jotzen saiatu dira alderdi eta ase-guru konpainiak, azpijokoan jardunda; baina hori dela medio, naturaren ondoriozko gertaera honek gehiegizko neurria hartu du.

Lehenik eta behin, gogora ditzagun zenbait gertakari. Garaia da jazoerak izan diren bezala bere onera ekartzekoa. Ezbeharrez, gure bidean prusiarrak aurkitu izan ditugu nahi gabe, eta ez da lehenengo aldia. Kostalde honetan haiek ez mendekorik, ez interesik, ez inolako negozio harremanik ez eduki arren, beren kanoilariak ikusi ditugu gure urak zeharkatzen, Espainiako Itsas Armada lagun. Armada hau, garai batean beldurgarria izanagatik, ez da lotsatzen atzerritarren laguntzaz baliatzeaz, Espainian gerra egiteko. Joan den udazkenean, itsasontzi alemana hondartzera etorri den leku berean, Getaria aurrean, Nautilus eta Albatros kanoioentzietatik hainbat kanoikada bota zituzten

gure boluntarioen aurka, eta harridura sortu zuen Baltikotik etorritako etsaiek gure nazioko borroketan parte hartzeak. Orduko hartan, oraintxe bezala, gertaerei Europa mailako gatazkaren neurria ematen saiatu ziren telegrafia agentziak, eta gure soldaduei itsasontzi alemanen aurka tiro egitea leporatu zieten. Ez da, ordea, halakorik frogatzea lortu, eta bitartean haien granaden arrastoak daude gure kostaldean. Europako bakea kolokan jartzearen erantzule egin gaituzte, zalantzarik gabe. Getariako herri txikiaren egoera bereziak gatazka zaratatsu honetan duen garrantzia ez dago ahazterik. Liberalek, gotorlekuaren babesarekin, soldadu talde bati eutsi diote herri horretan, baina ezin dute jan-edanik jaso, itsasoz ez bada. Hori kontuan harturik, gure postu aurreratuen etengabeko su gurutzatua jasan behar izaten du. Nazioarteko legeek ezin dute ez joan-etorria, ez bertako banderari zorzaion ohiko errespetua bermatu, alderdien sua etengabe gurutzatzen den lekuan. Hori horrela, eta nahiz eta ez Frantziak, ez Ingalaterrak ez duten gure beligerantzia onartu, herrialde horietako ontzi bakar bat ere ez da inguru hauetara azaldu, gure herrialdearekin merkataritzako harreman garrantzitsuak dituzten

arren. Jendearen eskubidea errespetatzeko, ulertu dute onena dela Gustav itsasontziarekin gertatutako gatazkaren antzekorik ez izatea.

Hori guztia kontuan hartuta ere, ez dugu eztabaidatuko abenduaren 12an Getariako uretan sartu zen merkantzia-ontziak tirorik jaso zuen edo ez zuen jaso karlisten postu arreratuena aldetik. Gure ofizial eta soldaduek ezetz diote, baita bertako agintaritzak eta herritarrek ere. Egungo egoeran, Gustaven moduko itsasontzi bat arrantza postu txiki batera bideratzeak gerrako kontrabandoa dakarrela pentsarazten badu ere, batu ditugun jakinarazpenek frogatzen dute gure soldaduek ez dutela haren aurka tiro egin, bila irten zaion ontzi liberalaren aurka baizik. Eta hori guztia justifikatzeko nahikoa da ikustea, marinela alemaniarrek ontzia utzi izana justifikatu nahi zutela, eta kostaldetik gertakaria ikusi zuten herritarrek, aldiz, ez zutela interesik horretan. Itsasontzian laguntza eskeko bandera igo zutela esan digute, baina gure soldaduek ez dituzte halako ikurrak ezagutzen, eta gainera, itsasoa haserre eta giroa lainotsua dagoenean, oso zaila da bereiztea begi adituentzat ere. Ondo uler bedi, Gustaveko arazoak benetakoak izan

direla onartu arren, adierazi nahi dugu ezin litezkeela Erregea eta Estatuaren Gobernuaren erantzule egin, justiziarik gabe.

Bandera guztiak errespeta zitezela agindu zuen Erregeak; hori dela eta, Gustav itsasontziaren egoera larria ezagutu bezain laster, agindua bidali zen (txosten honetan ageri dira telegramak), eskifaiari premiazko laguntza ahalik eta gehien emateko, eta ontzia eta zama salbatzarren ahalegin guztiak egiteko. Getarian babestu ziren naufragoak ez ziren Zarautzera etortzen ausartu, hogeita lau ordu igaro arte, eta ez ziren gure abegi onaz fio, etsaitzat hartzen baintuzten. Alemaniarrak etorri zirenerako, salbamendu lanak hasita zeuden, eta haienganako gure begikotasunaz uste zutena kontuan harturik, asko harritu zituen ahalegin horrek. Beraien “kategoria graduaren arabera” ostaturatu zituzten herrian, baita ere bakoitzari jasotako gauzak eman eta salbamendua egiteko erarik onena zein zen galdetu; hitz batean, espainiarrei egingo litzaiekeen guztia egin zitzaie alemaniarrei ere. Erregearen Gobernuak erabaki du, kasu honetan beste edozein gobernu erregularrek eta kristauk egingo lukeen zainketa eta babes eskumenak bakarrik erabiltzea; eta ez dio horri uko egin

une bakar batean ere, gure etsaiek azpijokoa eta asmo txarrak zabaldu izan arren. Naufragoekiko abegikortasuna azaltzea, salbatutako gauzak itzultzea izan dira gure asmoak, eta beharbada, zortzi egun baino lehen, kapitainak salduko ditu ontziaren hondarrak eta jabe bakoitzari helaraziko dio bere zama. Nahiz eta liberalak izan, aitortu beharko dute haien gobernuarekin lortuko luketen baino azkarrago eta merkeago egin dutela hori karlistekin. Honelako tamalak ikustean pena handia sentitzen da, gu hain leialak izan ondoren, atzerriko herrialde batek pentsatzea (gure abegi ona ordaintzearren, agidanez) Zarauzko herri baketsua bonbardatzea.

Aintzatespenaz ari garenez gero, Plambeck marinela Baionako prusiar enbaxadorearen aurrean egin eta prentsak jaso dituen adierazpenez hitz egin beharra daukagu, higuingarriak diren arren. Gizon honen eta bere kide-.....aren aitortpenak gezurrezko amarauna besterik ez dira. Azpimarratu behar dut baita ere, hainbeste zarata atera duten gure etsaiek ez baldin badute inoiz ezer esan kontramaisuaren eta tripulazioko beste zazpi gizonen kontsularen aurrean egindako adierazpenei buruz, izango da kontuak beste modu batez gertatu zirelako. Za-

lantza guztiak argituko ditu, gainera, datu honen: Prusiatik iritsitako lehen telegramak adierazpen horiez dihardu, eta «karlistek ondo hartu dute tripulazioa» esaldiarekin amaitzen da. Gustaveko eskifaiak esker ona adierazi zenez, zaraustarrek ez zuten asko uste era horretan ordainduko zietenik. Txosten honetan agertzen diren agirietan ofizialki jasota dago, marinelei emandako lehendabiziko objektuak haien jabetzako sei kutxa izan zirela. Honenbestez, ez dute inolako erreklamaziorik egin horri dagokionez. Kontu honen guztiaren hasierako mantsotasunaz bakarrik kexatu zen kapitaina, baina geldotasuna egotzi behar zitzaion ez izateari inolako paperik, nabigazio edo karga libururik, polizarik edo ezagutzarik. Den-dena galdu zuela esaten zuen hark, ezin zuela saltzaileen edo hartzaileen izenik eman. Hala eta guztiz ere, Zarautzera iritsitakoan, ontzian aurkitutako hainbat paper eman zitzaizkion, eta kapitainak erre egin zituen berehala, pertsona batzuen aurrean, garrantzi gabekoak zirela adierazteaz batera. Hori ikusi ondoren, tentuz jardutea beste irtenbiderik ez genuen izan, argibide egokiak kanpotik iritsi arte. Gai honetan izan dugun justizia eta esku-zabaltasuna agerian utziko lituzkeen beste gertaera batzuk isilean pasatuko ditugu.

Lehen unean Gustavek gure soldaduen erasoren bat jasan izan balu ere, uste dut frogatu dugula, hori ez zatekeela izango, ontziko kapitainak aukeratutako babeslekuan zegoen etengabeko liskar egoeraren ondorio normala besterik. Baina eraso horrek ez luke inolaz itsasontziaren hondoratzea eragingo, hori da garrantzitsua. Ez da lehen aldia toki honetan, egoera berberean, hondartze bat gertatu dela. Gustav itsasontziak aingura gehiago bota izan balitu ere, ekaitzak atera egingo zituzkeela diote lanbide horretan diharduten gizonek. Lehenik eta behin, bai kapitainak, bai pilotuak egingo idatzizko adierazpenek egiaztatzen dute, Gustaven galera enbataren ondorioz bakar-bakarrik izan zela. Eremu karlistan egonik, beraien pentsaerak libreki ezin azaldua aurpegi-ratu diezagukete, akaso. Baina beti azaldu dute ontziaren aurka tirokatu zutela, eta horrexek frogatzen du aurkakoa. Beraz, gehien ahal duenak, gutxien dezake. Gai honek sortutako intriga-mehatxuek izpirituetan eragin zezaketen haserreez gain, badira gauza gehiago ere, kapitainak ez baitu Zarautzera itzultzeko bature beldurrik izan, bertan baitago orain, pilotuarekin batera, gure harrera on leialari esker, konfiantzaz beterik.

Gaiari amaiera emateko, eta Erregearen asmo onez jakitun, gehitu beharra dago, nahi zitezkeen berme guztiak betetzen zituztela arduradunak izandako pertsonen. Madrilgo ministro ohi baten esku utzi zen Itsas Zuzendaritza, eta atzerrian hamabi urtean Espainiako kontsul funtzionarioa izandakoaren esku Herri Zuzendaritza. Gure lana amaitu da, eta oso ondo dakigu, karlisten lekukotasunek pertsonaia boteretsuren bat gogaitaraziz gero, ezingo dela lortu salaketak eragozte; baina guk, orduan, European justiziazko eta duintasuneko nazioak gorde dituzten guztiei dei egingo diegu, eta ziur gaude, gertatzen dena gertatzen dela ere, kontzientzia publikoa gure alde egongo dela. Erregeak, bere agintarien jokaera jakitera eman nahian, niri agindu dit, probintzia honetako ordezkaria naizen aldetik, deskargu honi publizitate ahalik eta handiena eman diezaiodan. Azpeitian, 1875eko urtarri-laren 26an. Gipuzkoako gobernadore Ceferino Suarez y Bravo” (frantsesetik itzuli dut, Edward Kirkpatrick of Closeburn jeneralaren Souvenirs de la Dernière Guerre Carliste, 1872-1876 [Azken Karlistaldiko oroitzapenak] liburutik aterata, 386-390 orrialdeak).

Gustav itsasontziaren hondartzearen kontaketa honetan ezin dut aipatu gabe utzi, Newcastletik (Ingalaterra) ontziko pilotuak, frantses oso eskasean, nire aita Jorge Ameztiri idatzitako gutuna. Zarauztik 5ean irten eta urte horretako otsailaren 19an Alemaniara iritsi zireneko bidaiari buruzko bitxikeriak eta gauza interesgarriak kontatzen ditu, eta hain zuzen hortxe ikusten da nire gurasoenganako esker ona abegi onarengatik, eskerrak ematen baitizkie berriz ere.

Eskutitz hori bere horretan kopiatuko dut lehenik, eta ondoren, itzuli ezinezko esaldiak baitaude, ahal dudan ondoen emango dut:

Newcastle le 16 may 1875. Mon cher ami Amezti, J'espère que ces mots vous trouveront dans bonne santé, j'écriverai un peu de moi. Nous quittons zarauz le 5 fevrier et arrivamez en Allemagne el 19 fevrier, ou nous trouvions tous les nôtres tressantes. Maintenant je suis à une aute navire en Inglaterre et nous irons d'i à Riga, qui est située en Russie. Je désire de savoir où est maintenant le Gustave. Le marchand à San Sebastian à-t reçu le cargo? Les bellas et ropas, sont-ils éncore dans le petite maison chez l'église? J'espere que vous avez trouvé tou..... que vous veniez.....

L'ancienne allemande bando e'tait bon pour nous tous. Cachez le même que une....., le est égal pour nous, qui à l'autre, car cap. Zeplin a reçu payé son navire par Alphonso. Zeplin est encore dans sa maison, son épouse a reçu un petit fils. Je vous remercie encore pour toute la bonté que vous m'avez donnée et j'espère que vous répondriez à votre ami Fr..... Mucha complimento à papa, madame Felipa, Jenaro et Fernando, Antolina, piloto. Mon adresse est "Piloto Fr....., navire Allemande Doris..... Ad. Monsieur P..... Kleingarns à Riga. Russie. Me voulez, vous..... para cartas (Anciens Don Carlos). Piloto.

Gutxi gorabehera, honelakoa da itzulpena:

"Newcastlen, 1875eko maiatzaren 16an. Amezti, nire lagun maitea; hitz hauek idaztean osasuntsu aurkituko zarela espero dudanez, nitaz mintzatuko naitzaizu pixka bat. Otsailaren 5ean utzi genuen Zarautz, eta otsailaren 19an iritsi ginen Alemaniara. Osasun onean aurkitu genituen etxeko guztiak. Gaur egun beste ontzi batean nago, Ingalaterran, eta hemendik Rigara joango gara, Errusiara, alegia. Gustav itsasontzia orain non dagoen jakin nahi dut. Zama jaso

*al du Donostiako merkatariak? Elizaren etxe-
txoan al daude haize-oihalak eta arropak? Dena
ontzat hartu duzula espero dut (ez dakit zer nahi
duen esan «que vous venez» esaldiak). Alemaniako
bandera zaharra ona zen denontzat, gorde ezazu
ondo, gertatutakoaren oroigarri. Berdin da gu-
retzat zein bestearentzat, ontziarengatik Alfon-
tsok ordaindu baitio Zeplin kapitainari. Orain-
dik bere etxean dago Zeplin, haren emazteak
haur txikia izan du. Nirekin izandako eskuza-
baltasunarengatik eskerrak eman behar dizkizut
berriro, eta espero dut erantzungo diozula zure
laguna den honi. Fr. Eskuminak zure
aitari, Felipa andreari, Jenarori eta Fernandori
(hau ni naiz, Venancio), Antoniari. Pilotua. Nire
helbidea: Fr. pilotua, Doris itsasontzi
alemana Gutun zaharretako zigilu
bat bidali nahi badidazu, Don Carlos. Pilotua”.*

Gustav salbatzeko ahalegin guztiak egin zituzten arren, ez zuten lortu, eta hondoa jotako leku berean abandonatuta geratu zen. Gogoan dut, haurra nintzela, ontzi hura iruditu zitzaidala gizon baten garaierakoa; gerora, haren hondakinak askotan azaldu izan dira ekaitz bortitzen ondorioz. Horien testigu ere izan naiz, eta nahiz eta begien bistan azaltzen den bakoitzean norbait aizkorarekin joaten den materiala

kentzera eta hartaz baliatzera, oraindik ere agertzen omen dira kondarrak, hala esan baitidate ikusi izan dituztenek.

Brankan zekarren irudia gizon sendo batena zen, ia berezko tamainakoa, baina gorputz erdikoa soilik; egur gogorrez eginda dago, eta gordeta daukat oraindik. Ontzi gainean ekarri zuen kanpai txikia ere gure etxean egon zen, eta duela 35 edo 40 urte nire aitak, Jorge Ameztik, parrokiari oparitu zion, kantikatan eraman eta jotzeko. Hala ere, horretarako pisuegia zenez, parrokiak erruki-etxeari oparitu zion 1891n, eraikina egin zenean. Han jarraitzen du oraindik, ez-kilatagian.

Itsasontziko bandera alemana, balkoian esekirik kapitainak eta pilotuak beren buruak defendatzeko erabili zutena, eta bide batez gure etxea eta sendia babes-teko, pilotuak gutunean aipatutako bandera hura gure etxean egon zen, baina urte asko dira desagertu zela.

OHAR EDITORIALA.- Irakurri edo transkriba ezineko hitzen ordeaz, etenpuntuak jarri dira.

GUSTAV

HISTORIA DE UN HUNDIMIENTO

Curiosa carta del piloto del Gustavo
de fecha 16 de Mayo de 1875.

No puedo menos de insertar en esta
hoja Amesti, la relevo una carta escrita desde
que recibí, porque hay en un francés
Febrero de dicho año y otras cosas en
ella que fueron muy agradecidos y
des, puesto que da de nuevo gran
mente dicha carta tal como está
que pueda, pero hay frases y
carta copiada literalmente es si
mon cher ami Amesti: J'esp
dans bonne santé, j'esp
carant le 5 Février et a
ou nous recevions,
vies à une autre
qui est sit



VENANCIO AMEZTI



El texto que reproducimos a continuación fue escrito por Venancio Amezti, y es de los pocos textos en los que se recoge información sobre el buque Gustav hundido en Zarautz.

El capellán Venancio de Amezti fue cronista de Zarautz durante muchos años, a principios del siglo XX. En distintos tomos escritos a mano se recoge gran parte de la historia de Zarautz, en miles de páginas. Los manuscritos originales se guardan en el archivo parroquial de la diócesis de Zarautz, en la Parroquia Santa María la Real.

Fue el primer capellán del convento de las Carmelitas descalzas de Zarautz, y, como curiosidad, cabe señalar que fue tío de Don Evaristo Uranga, famoso médico de Zarautz.

El barco alemán Gustav se arrimó a nuestra costa el 12 de diciembre de 1874, huyendo de una terrible tempestad. Quiso acercarse a Getaria, al cobijo del monte San Antón, pero fue tiroteado por el 3º Batallón de Carlistas, que se encontraba en el caserío Akarregi, creyendo que traía contrabando de guerra.

La guerra carlista estaba en pleno apogeo. Getaria estaba en manos de los liberales, y sitiado por los carlistas. Estos últimos pensaron que el barco traía ayuda a los liberales y comenzaron a tirotear el barco. Gracias a los getariarras que salieron en su ayuda pudieron amarrar, al fin, la embarcación. Durante la noche, la tormenta rompió las amarras y arrastró el barco a la costa de Zarautz, donde varó. Durante los siguientes días, el petróleo que transportaba el Gustav se convirtió en un auténtico tesoro para los carlistas, que se encontraban bajo el bloqueo internacional.

Alemania era una nación neutral en este conflicto, pero ya comenzaba a afianzarse en su naturaleza imperial con el levantamiento de una armada nacional. El hecho de tirotear y hacerse con el petróleo de un barco alemán creó un conflicto diplomático por el que Alemania estuvo a punto de declarar la guerra a los carlistas. Al final, las aguas volvieron a su cauce.

En cuanto a la embarcación, a pesar de los esfuerzos que se realizaron para su salvamento, quedó abandonada en el mismo lugar en el que varó. Las cuadernas de su esqueleto quedan a la vista cada cierto tiempo, cuando los temporales del mar llevan la arena de la desemboadura de Iñurritza.



